

## Saharatik Donostira, XiRiMiRiren bitartez

Mendebaldeko Saharan bizi den egoera gatazkatsua ez da inondik inora berria. Justua ezta ere. Marokok menperatu eta bertakoak basamortuan ihesi joan zirenetik ez dute konponbiderik aurkitu. Gerrak konpondu ez zuena ez dirudi ere denborak konponduko duenik, elkarrizketa eta konponbide justurako borondaterik ez bada. Gatazka bertatik bertara bizi eta berarekin daramanaren testigantza dugu honako hau. Gurutze Irizar Ormaiztegin jaioa da eta erizain lanak egiten ditu Zumarragako ospitalean. Bestelakoa da ordea bere borroka.

### Saharara joan zinen lehen aldian zer ikusi eta sentitu zenuen?

Begibetea basamortua ikusi nuen eta gero miseria eta injustizia handia. Lehenengo hilabeteak oso gogorak izan ziren; basamortu erdian geunden eta inguratuta. Gainera egunero-egunero abiazio marokoarra etortzen zen bonbardeatzera eta momentuan jakin ez arren, orain jakin izan dut airetik botatzen zutena napala eta fosforo zuria zela. Amorrua ere sentitzen da, kontutan hartu behar baita, Saharako herriaren kasuan, eskubide denak beren alde dituztela.

Guzti honek hausnarketa batetara eramaten zaitu: pertsona zenbateraino kalte egiteko kapaz den beste pertsona batzuei, beraiei tokatzen ez zaiena eta beraiena ez dena lortzearren.

### Zein izan da saharar herriak bizi duen gatazkaren garapen historikoa?

Sahara librea zen Espainiak kolonizatu arte eta 1975ean Maroko eta Mauritaniarekin akordio bat sinatu zuen. Momentu horretan, 75eko abenduan joan nintzen ni Saharara. Marokok Martxa Berdeari hasiera eman zion baino paraleloki martxa militarra izan zena. Gerraren hasiera. 1990ean ONUk bake plan bat sortu zuen. Bake plan horren lehen pausoa su-etena zen eta horren ondoren identifikazioa, gero erreferendum batean boto eskubidea edukitzeko, hau da, zerrenda bat egin nahi zen, erreferendum hori egiteko eskubidea nork izango zuen jakiteko. Erreferendum hori autodeterminazio erreferenduma bat zen, bertako biztanleek zer nahi zuten jakiteko: Sahara librea izatea, Sahara marokoarra izatea, Marokoren barruan autonomia bat izatea...

Su-etena, identifikazio prozesua egin zen. Bake plana bi aldeek sinatu zuten. Pauso guztiak egin dituzte baina erreferenduma egiteko garaia iritsi denean, marokoarrek denbora guztian oztopatu egiten dute eta orduan erreferendum hori ez da egiten. Frantziak Maroko defendatzen du beti, Saharan interes izugarriak dituelako. Sahara oso aberatsa da, lurralde horretan ukitu gabeko petrolio, gasa eta ura dagoelako. Horrez gain, arrantza aldetik, turismo aldetik... dauden aukerak ere kontutan hartu behar dira.

### Nolakoa da hango bizimodua (ohiturak)? Non egiten duzue lo? Zer jaten duzue?

Jendea errefuxiatu kanpamentuetan jaima deitzen zaien toki batzuetan bizi dira. Kanpin denda modukoak dira, handi xamarrek eta lurrean lo egiten dute. Kanpin batean egotea bezala da baina 30 urtetan zehar, neguan hotza eta udan izugarrizko beroa egiten duela. Beraien ohiturak orain bizi diren tokira egokitu behar izan dituzte. Kanpotik bidaltzen zaien laguntzari esker ere bizi dira.

Berdura eta arrain freskoa oso gutxi jaten dute. Lentejak, babarrunak, irinarekin, gamelu, ahuntz edo ardi haragia, oilaskoa... Kus-kusa eta ogia beraiek egiten dute. Ez dute ezer ereiteko aukerarik, hango lurra oso oso lehorra baita. Basamortu barruan toki guztiak ez dira berdinak eta beraiek bizi diren lekua basamortu barruan lehorrena da.

### **Zer erlijiotakoak dira? Zer hizkuntzatan hitz egiten da han?**

Musulmanak dira eta musulmanen barruan sunitak. Sahararrak, marokoarrak eta aljeriarrak, nahiz eta lurralde berdinean bizi, oso harrিতuta gelditzen dira sahararrak zenbaterainoko tolerantetik diren ikusten dutenean. Adb: neska bat tirazko kamisetan joateagatik inork ez du ezer esaten. Beraien artean ere, otoitza egiten duena oso ondo eta egiten ez duena ere bai.

Jesenia da lehengo hizkuntza eta erdara ere asko hitz egiten da, eskoletan bigarren hizkuntza bezala erakusten delarik. Nazio arabiarrek "arabiar batua" ren antzeko zerbait dute eta nazio bakoitzean hitz egiten da hortik ateratzen den hizkuntza bat, kasu honetan jesenia dena. Nik arabiar batua ez dakit, ez dut ikasi. Nik hizkuntza hori hango jendearekin hitz egiten ikasi dut. Hala ere, beste herrietako arabiarrekin hitz egiten dudanean, elkar ulertzen gara.

### **Zein da emakumeen papera sahararren artean?**

Hango emakumeak oso abilak dira. Erreboluzioarekin gerra hasi zenean, gizonezko gehienak fronte militarrean zeuden. Honela, kanpamentuetan gehien bat emakumezkoak gelditu ziren eta horregatik izugarrizko papera izan zuten, kanpamentuetako antolamendu guztia, lana... beraiek egin behar baitzuten. Emakumeak izan dira kanpamentuak aurrera atera dituztenak. Gizonezkoen mentalitatea asko aldatu da, konturatu eta ikusi dutelako emakumeak gai direla gauza asko egiteko.

Emakumeen papera, hala ere, aldatzen ari da, ez baita etxe barrura soilik mugatzen. Orain gazte saharar asko Kubara joan dira ikastera. Horietako asko neskak dira eta horrela neska medikuak, kazetariak, injineruak, arkitektoak, informatikoak... daude. Ondo prestatutako emakumeak dira. Bertako komunikabideetan...lana dute baina kontutan izan behar da beraiek ikasitakoa bizi diren lekura moldatu behar dutela.

### **Saharako sinbolo bat esan beharko bazenu, zein esango zenuke?**

Haiantzako inportantea den sinbolo bakarra Saharako mapa da, beraien lurraldea eta jendeak Sahararekin lotzen duen sinbolo bat turbantea izan daiteke, emakume bat hango janzkerarekin, gamelu bat...

Tea ere sinbolo bat izan daiteke baina Saharako basamortuak hartzen dituen lurralde edo nazio guztiak te berdea hartzen dute (egarria kentzen duen gauza bakarra delako). Beraz, ez da bertakoa bakarrik.

Saharako banderak gaur egun goian kolore beltza du eta berdea behean. Askeak direnean, ordea, aldatu egingo dute: berdea goian eta beltza behean.

### **Momentu honetan nolakoa da Saharak bizi duen egoera? Aldaketarik egon al da?**

Egoera oso nahasia dago. Ez da aldaketarik eman baina horrela hamabost urte pasa dira. Erreferenduma ez da oraindik egin eta gainera iruditzen zaigu ez dela egingo. Bake plan hori edo su-etena kontrolatzeko bertan ONUko pazifikazio tropa batzuk daude (kasko urdinak) denbora guztian.

Maroko eta Frantziak erreferenduma oztopatzen dute baina kontutan hartu behar da Madrilgo gobernuak ere zer esan handia duela eta paper aktibo bat izan beharko lukeela. Herri mailan orokorki sahararren aldeko iritzia dago. Frente Polisarioak onartu du erreferendumean ateratzen dena ateratzen dela ere errespetatuko duela baina beste aldekoek ere hori onartuko al lukete?

### **Eta Euskal Herritik?**

Euskal Herritik, hasiera-hasieratik, bai instituzio mailan eta bai herri mailan ere, laguntza handia dago eta nik uste oso sentitua. Hemen agian sentsibilizazio handiagoa dugu arazo horrekin, kontutan izanda guk hemen bizi ditugun arazoak.

### **Xirimiri Gazte Taldetik zer egin dezakegu egoera hori aldatzeko edo aldatzen laguntzeko?**

Modu askotara lagundu dezakezue. Horietako bat, oso garrantzitsua dena, han gertatzen denarekin informatua egotea da. Kontutan hartu behar duzue han ez dagoela kanpoko komunikabiderik (kanpoko irratirik, kanpoko prentsarik...) eta horregatik kanpoan ez da jakiten han zer gertatzen den. Oso momentu konkretuetan egoten dira kazetariak (aurreko asteburuan adibidez). Saharari buruzko informazio guztia edo gehiena honako helbide honetan aurki dezakezue: [www.arso.org](http://www.arso.org)

Beste laguntza bide bat kanpaina puntualak eta gauza puntualak egiten direnean elkarteei esku bat botatzea izango litzateke. Hemendik taldetxo bat hara joatea ere posible da. Badira joaten direnak. Gainera gazte topaketa internazional moduko bat egitekotan dabilta Saharan aurtengo udazkenean edo datorren urteko udaberrian.

### **XiRiMiRi Gazte Taldetik X4-k Gurutze Irizarri eginiko elkarrizketa**